

## ETAren agiria Euskal Herriari:

ETAk, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzaileak, hurrengo ekintzak bere gain hartzen ditu:

- Uztailaren 29an, Torremolinosen (Espainia), Espainiako interes ekonomiko eta turistikoen aurka lehergailuz buruturiko ekintza. Lehergailua ez zen aurreikusitako egun eta orduan lehertu.
- Abuztuaren 17an, Benalmedenan (Espainian), Espainiako interes ekonomiko eta turistikoen aurka lehergailuz buruturiko ekintza. Benalmedenako portua jendez hustu behar izan zuten.
- Abuztuaren 17an, Guadalmarren (Espainian), Espainiako interes ekonomiko eta turistikoen aurka lehergailuz buruturiko ekintza. Guadalmarreko hondartza jendez hustu behar izan zuten.
- Abuztuaren 17an, Malagan (Espainian), Espainiako turismoaren aurka lehergailuz buruturiko ekintza. Aireporturako AP7 autopistan auto-ilara luzeak eragin zituen.
- Irailaren 16an, Basaurin, Euskal Herria zanpatzen duen Espainiako Poliziaren aurka lehergailuz saiaturiko ekintza.
- Irailaren 21ean, Gasteizen, Caja Vital/Vital Kutxaren egoitza nagusiaren aurka leherkariz betetako auto batez buruturiko ekintza, kalte materialak eraginez.
- Irailaren 21ean, Ondarroan, Espainiako Polizia Autonomikoaren aurka leherkariz betetako auto batez buruturiko ekintza. Ekintzaren ondorioz Espainiako Polizia Autonomikoaren kasernan kalte material handiak eragin ziren. Eztandaren ondorioz zenbait herritar zauriturik gertatu ziren.
- Irailaren 22an, Santoñan (Espainia), Espainiako Armadaren aurka leherkariz betetako auto batez buruturiko ekintza. Ekintzaren ondorioz kaserna militarrek kalteak jasan zituen eta Luis Conde Espainiako Armadako brigada hilik suertatu zen.
- Urriaren 4an, Tolosan, Espainiako Justizia aparatuen aurka leherkariz buruturiko ekintza, kalte materialak eraginez.
- Urriaren 30ean, Iruñean, Euskal Herriaren etsai den Opus Deiren unibertsitatearen aurka leherkariz betetako auto batez buruturiko ekintza, kalte materialak eraginez. Eztandaren ondorioz hainbat herritar arinki zauriturik gertatu ziren.

Ekintza hauen aldarrikapenarekin batera, eta bidenabar, etsaien egoitza eta kasernetatik urruntzeko deia egiten diegu herritarrei. Bai eta Espainiako Polizia Autonomikoak ezarriak dituenetik ere.

### Apustu errepresiboan Espainia eta Frantziak urrats berriak emanez:

Espainia eta Frantziako estatuak Euskal Herria barneratu ezin eta txikitzen dihardute. Zanaketak behar duen gezurrezko babes eta oinarri ideologiko faxista ezinbesteko dute: “Independentista guztiak ETAkoak dira” eta ETAkoak direnez, ETAkoak lez atxilo hartu, torturatu eta espetxeratu behar dira. Kartzela ziurtasunez saihesteko bi aukera utzi nahi dituzte herri honetan: Herri honen zanpatzaile izan edo herri honek jasaten duen zanaketa babestu edota beste aldera begiratzea.

Espainiako Justizia aparatua EHAK eta ANV-EAE espainiar legetik kanpo utzi ditu. Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideak espetxeratu ditu. Adierazpen, manifestazio, antolatze askatasunik ez dago. Horrekin batera Nafarroa Garaian militante independentisten aurka indar okupatzaileak burutzen ari diren raziak etorri dira herritarrek torturatu eta espetxeratu. Lapurdi, Behe Nafarroan eta Zuberoan Frantziako agintariak, haien epaileen bidez, eraso polizial larriak burutu dituzte hamaika lagun atxilo hartuz.

Frantziako Estatuak ez du atzean geratu nahi Euskal Herritar konprometituen aurkako norgehiagoka errepresibo horretan. “Liberté, Egalité et Fraternité” lelo frantsesa euskaldunontzat: “Réprimer, assimiler ou emprisonner” besterik ez da izan azken mendean. Orain Sarkozy eta enparauak errepresioaren labana zorroztera datoz eraso errepresibo berriekin. Batasuna legez kanpo utzi nahi dute, ezker abertzalea suntsitu, desagerrarazi. Ez dute Euskal Herria ezagutu nahi, baina ez eta beste inork aldarrikatzea nahi ere.

Frantziaren menpeko Euskal Herria turistaz, kasinoz, golfaz, udarako apartamentuz bete eta turismorako landetxe batean bilakatu nahi dute. Ez da lekuri indusiarako, ez arrantzarako, ez laborarientzako ez eta bertan bizi eta lan egin nahi duten euskal herritarrentzako ere. Euskara eta euskal hezkuntzarekiko jarrera asimilazio konplexu gabeak erakusten dituzte, euskarazko hezkuntza ito asmo dabilta urtez urte. Bertakoak gure herrian arrotz sentiarazi nahi gaituzte.

Madriren artean, Rubalcaba estrategia errepresoreak Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren aurkako bidean sakontzeari ekin dio. Euskal Herriaren aldeko borroka eta ETAren amaitzeko ezin horretara daramatza. Orain, Euskal Herria aintzat hartzen duen edozein lagun torturatu eta espetxeratzeko irizpidea jaso dute kolore guztietako polizia eta epaileak. ETAren aurkako operazio polizialak burutu ezin dituztenean sortu duten espainiar iritzi publiko antiabertzalearen “basapiztiari” edonolako “okela independentista” eskaini behar diote jan dezan. Helburu argiak ditu apustu eta estrategia errepresiboak:

– Ezker Abertzaleari ate guztiak itxi: Borroka politikotik, komunikabideetatik eta kaletik ateratzeko.

– Ezker abertzaleko militanteak beldurtu: hauek atxilo hartu, torturatu eta espetxeratu haien lan eta militantzia albora dezaten.

– Euskal Preso Politikoen aurkako etengabeko jazarpena eta damuketarako presioa: Espetxealdi jasaezinen ondorioz ETako burkide bahituek bere Erakundeari presioa egin diezaioten.

ETAk egoera errepresibo horren aurrean hausnarketa eskatzen die euskal herritar eta eragileei. Telesforo Monzonek behin adierazi zuen bezalaxe: herri gisa zanpatzen baigaituzte, herri gisa erantzun behar dugu. ETA, Euskal Herriak jasaten duen eraso terrorista orokorraren aurrean, ez da besoak gurutzaturik geratuko. “Victimismoa”ren diskurtso odolzale eta subentzionauekin errepresio terroristari bide eman nahi diote. Gasteizko Barne Saileko soldatapekoa den Marixabel Lasa bezalako militante antiabertzaleen krokodilo malkotan herri honek jasaten duen zanpaketa lausotu eta azabatu nahi dute. Herri honen borroka despolizitatu, herri honengatik dena eman duten gudariak beheratu nahi dituzte, preso politikoak heriotzaraino zigortu. Biktimaz mozorrotutako borrokoak ezker abertzalearen aurkako sorgin ehiza bultzatzen ari dira. ETAk oharpen argia helarazten die hauei: Sufrikarioaren izenean errepresio estrategia faxista hausportzeak, estrategia horretan erantzukizunak eta ardurak hartzea dakar.

Finean, aurrez diseinatutako estrategia errepresibo horren bidez Euskal Herria independentziara eraman dezakeen mugimendu herritarra beldurrez desagerrarazi nahi dute. Haatik, ez da egundaino Euskal Herria mendean hartuko duen agintaririk jaio. Makina bat agintaririk erran du “Domuit vascones”, eta hemen gaude XXI. mendean askatasunari jartzen dizkioten ate pisutsuak ez ixteko borrokan. Erronka bota dute PSOeko bozeramaileek: Herri honen azken aukera iragan dela diote, errenditza besterik ez dugula. Aurretik Adolfo Suarez eta Leopoldo Calvo Sotelok ETArekin polizialki bukatu ahal zela erran zuten, bai eta Felipe Gonzalez eta Jose Maria Aznarrek ere ondorenean. Orain Jose Luis Rodriguez Zapaterori egokitzen zaio txanda. Baina denak etorritako bidetik joan ziren eta gure Herriak hemen dirau: Zutik eta bizirik. Berriz ere eseriko dira. Berriz ere eseraraziko ditugu behingoan Euskal Herriaren eskubideak aitortzeko. Artean, Euskal Herriaren eskubideak ezagutuak eta errespetatuak ez diren bitartean zanpaketaren kontrako erresistentziak iraungo du.

#### Aberatsen ase ezina, langileok ordainduko dugu:

Globalizazio neoliberalak diktadura globala da. Inork ez du hori aldatzeko eskubiderik, antidemokratikoa da, inori ez zaio hori aldatzeko bozka eskatzen. Munduko agintariek urteak daramatzate ekonomian estatuaren esku sartzea okerra dela esaten, merkatua berez orekatu eta kudeatzen dela. Orain ordea krisi ekonomikoa dagoela diote. Baina krisia benetan sistema kapitalistarena da. Inork ordea ezin du sistema zalantzan jarri. Berdin dio zenbat gosete, injustizia, zapalkuntza, miseria eta herio sortzen duen. Egon zitekeen bakarra da eta kitto.

Urteetan langileen izerdiaz eta hipoteken bidez aberastu den elite ekonomikoa krisi egoeran dago. Urte hauetako aberastasuna ez dute banatu, urte hauetako mozkin guztiak sakelaratu dituzte. Baina orain galerak datoz eta berarekin hareazko gazteluaren lubizia. Krisiarengandik babestuak izan behar garen herritarrok argaldutako gure diru-zorroak nola husten dituzten ikusten dugu. Zertarako eta bankuen mesederako. Krisiaren erantzuleek ordea ez dute ez epaitegirik ez eta espetxerik zapalduko ere. Asmoa argia da: krisia aberatsen poltsikotik langileen poltsikora iragatea, beharrezkoak diren neurriak hartuz horretarako. Irabaziak pribazitatu, galerak nazionalizatu. Hau da munduko elite ekonomikoen politikari-morroiek darabilten dema. Herritarren iritzia nahastu nahi dituzte. Edozer aldatzeko prest daude, ezer aldatu ez dadin, sistema bere horretan mantendu dadin.

Gurean ere berdin. Sarkozy eta Zapatero norgehiagoka ari dira aberatsek lapurretaz eragindako zuloa herritarren diruaz estali asmoz. Sanz eta enparauek nafar ekonomiaren kontrola multinazionalen esku utzi ondoren, Volkswagen erraldoiak ihes egingo ote dienaren beldur dira. Ibarretxerekin batera, enpresari laguntzat azpiegituren makroproiektuak azkartu dituzte diru publikoa betikoen esku uzteko. Ibarretxek ere errana du EAEn krisiaren eragina txikia izango dela, «euskaldunok» ongi bizi garela, «etxeko lanak aurrez eginak ditugula»... Hipoteka ordaintzeko 40 urtez soldata oso bat behar denik ba al daki? Prekariatatearen ondorioz istriputan hiltzen diren langileen berririk ez al dio inork ematen? Ez al du lehengaien prezioaren igoeraren berri?

Sanzek eta Ibarretxek ez dituzte langileen arazoak eta kezkak ezagutzen. Biak ala biak, egun batean zein bestean, enpresariekin inaugurazioetan, hitzaldietan, hauekin antolatutako gosari publikoetan... agertzen zaizkigu bilduta. Azken urteetan inork ez ditu langile edo sindikaturen batekin solasean ikusi. Enpresariekin eroso daude, hauengandik esker ona besterik ez dute jasotzen.

Krisiaren aitzakiaz, eta interes berdintsuen defentsan, PSOEk ezusteko laguntza jaso du Espainiako Kongresuan UPNren partetik, PNVren aldetik jaso duen bezalaxe. Hara non elkar topatzen duten bi alderdi erregionalistek, PSOEn aurrekontuei babes emateko orduan.

### Nafarroa Garaia forala eta espainiarra behin betikotu nahi dute:

Boterea eta diruaren epelean biltzeko arazo gutxi topatzen dute Nafarroa Garaiko kuneteroen eta frankismoak hildakoen bilobek. UPN, nafar Gobernuaren boterea eta beraiek aukeratutako goi funtzionarioak ez galtzeko, PPrekin apurtzeko prest ageri da. Zer ez dute egingo beraien administrazioko postuak defendatzeko? Zer ez Nafarroa, beraien gidaritzapean, «Foral y Española» izan dadin?

Boterea ez galtzearren PNVren aliatu bera bilatu du UPNk, hots, PSOE. Ezker abertzalearen desagerpena Nafarroan beharizan estrategikoa izanik, Nafarroa Bairen ezinbesteko laguntza bilatu eta merke lortu dute. Ilegalizazioaren estrategian eta errepresioa zilegi bilakatzeko paperean funtsezkoa baita. Abilezia berezia erakutsi dute Nafarroa Baiko arduradunek ezker abertzalea zokoratu, ETAREN ekintzen aurka inor baino ozenago agertu eta Guardia Zibilak euskal herritarren defentsan jokatzeko omen duen papera goraiatzeko garaian. Fitsik ez Nafarroak jasaten duen errepresio basa eta euskaltasunaren zanpaketaren aurka. NaBaik PSOERekin eraiki nahi zuen UPNren aitzineko «alternatiba». Hauek halere, nahiago itzalean UPNren Gobernuaren sostengatzen jarraitu. Ez da hortik Euskal Herria aintzat hartuko duen inongo alternatibarik etorriko. Nafarroan dagoen alternatiba bakarrak ilegalizatua eta zanpatua jarraitzen du.

Arduradun horiek barbaroak deitu gaituzte Nafarroako bizkarrezurra kolpatu omen dugulako. Herri diruz eskuzabal lagundua izanagatik, Escrivá de Balaguerren unibertsitatea ez da Nafarroaren ondare ezta bizkar hezurra ere. Opus Dei, Nafarroa frankistaren koadro berriak hezi eta belaunaldi berriak ziurtatzeko makina besterik ez da, UPNren proiektu faxistaren bizkar hezurra. Horregatik kolpatu eta kolpatzen jarraituko du ETAK.

Proiektu faxista horren parte, nonbait Nafarroako Foru Polizia beste Espainiako Polizia Autonomiko batean bilakatu nahi dute. Ezker abertzalea eta borrokan dabiltzan herritar oro jazartzen erakusten ari diren gorrotoak biak parean jartzen ditu. ETAK bere kezka erakustearekin batera, Foru Polizia osatzen dutenak eta beraien arduradunak hausnarketa egin eta daramaten bidea berehalakoan uztera deitzen ditu.

### PNVk PSOERekin aliantza estrategikoa osatu nahi du:

Nora doa Urkullu eta Egibarren PNV? Inora ere ez. Dagoen tokia da ziurtatu nahi duen bakarra. Beldurra du, Gasteizko boterea galtzeko beldurra. Negoziazio prozesuan ere, PSOEek baino sendoago errefusatzeko Espainiaren menpeko lau lurraldeak benetako marko demokratiko baten baitan biltzeko aukera. Orduz geroztik, Josu Jon Imaz alboratu dute PNVk hartu duen bide espainolista konplexurik gabe erakusten zuelako, bozkak urruntzen zituelako. Baina Urkullu, Ibarretxe eta Egibarren PNV Josu Jonen bidai-orria ederki betetzen ari da Arriagako izpiritura itzuliz.

Kontsulta egin nahi zuten ala kontsultaren antzezlanak? Nork uler dezake kontsulta autonomikoaren ukatzaile nagusia egun batean Zapatero dela salatzea, eta lau egunetara Zapateroren aurrekontuak babestea?

Kontraesanen aurrean Urkullu burukideak presaka atera behar izan du herri hau hamaikagarrenez «lenteja plater» baten truke saldu ondoren honen osagaiak goraiatzera. Baina zaila da behin eta berriz herri honi plater usandu eta hotz bera irenstaraztea. Iñigo Urkulluk eta Euzkadi Buru Batzarreko burukideek mafia siziliarra motz uzten dute. Ikusi besterik ez dago Txabarri, Ardanza, Ortuzar eta Josu Jon Imaz bera ere EBBko eserlektutik enpresa edo kargu publiko nagusien postuetara (edo alderantziz) nola iragan diren. Madrilgo akordioari opari papera kenduz gero, horra hor berriz ere herri hau «eraikitze» EBBren ekarpena:

– Ardanza jeltzalearentzat eta bera buru den Euskaltelentzako negozio eremu berriak.

– Txabarri eta bere lagun enpresari jeltzaleentzat milioika euro Jaizkibel txikitu eta Pasaiako itsas portuko lanen irabaziak aurreratzeke.

– Ezker abertzalearen aurkako jazarpenean hainbeste eskatzen zaien ertzainei ordain modura, erretreta adina Espainiako Poliziarenekin parekatzea.

– Azkenik, Ikerketa eta Garapenerako milioika euro. Enpresari lagunaren artean banatu eta ondoren ohi duten legez, Gasteizko aurrekontuen «gastu soziala»ren atalean sartzeko.

PNVk jukutria autonomiko berria burutu nahi du, «sano regionalismo»an birkokatu. Horretarako, edozertarako prest agertzen zaigu, Zapateroren aurrekontuak babestera heldu arte. Zer eta Zapateroren aurrekontuak; ilegalizazioaren bultzatzailea, negoziatio prozesua apurtzearen arduradun nagusia, Ibarretxeren kontsulta iruzurgilea onartzeko prest ere ez dagoenaren aurrekontuak. Zer eta Gobernu espainiarraren aurrekontuak: Polizia torturatzailea eta gure lurak okupatzen dituen Ejerzitoaren aurrekontuak ordaintzeko, epaitegi faxistak ordaintzeko... Gure herria ukatu eta berau txikitzeke aurrekontuak hitzartu ditu PSOE-PNV aliantzak.

Apustu neoestatutarioa doa PNV. Aurrekontuei babesa, bide horretan emaniko urratsa da. Herri honen zatiketa ekarru zien Moncloako Estatutua hilda dagoen arren, biziberritu nahi dute. PNVk aliantza estrategikoa egin nahi du PSOERekin. PNVk PSOE kautibatua nahi du, azken honek PPrekin batera Lakuako

Gobernua kentzeko tentazioa gal dezan. Bidelagun fidela izan eta erakutsi nahi du. Helburu estrategiko argiak dituzte elkarrekin. Independentismoarekin eta bere alternatiba politikoarekin amaitu batetik. Zatiketa instituzionalaren botere kuotak bermatzeko, Estatutu berri bat egin bestetik.

Ez dute markoaren porrota onartu nahi. Ez dute Moncloako Estatutua herri honentzat akabera besterik ez dela onartu nahi, Espainiaren neurrira egina dela. Espainian eroso bizi nahi du PNVk, garaia inoiz aldatuko ez diren esperantzaz. Ez du gatazka gainditu eta konpondu nahi, txanpon horren beste alde egungo markoa gainditu eta benetako marko demokratiko bat sortzea dela badakielako. Autodeterminazioa kontsulta autonomista batean ito nahi du, herri eskaerak desitxuratu eta ildo estatutarioari subiranotasunaren labela eman nahian dabil. UPN bezala, PNVk Lakua eta marko zatikatzaitetik eratorri erakundeetako poltrona edonola mantendu nahi du.

Bide beretik Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduekin bukatzeko asmotan eroso daude PSOerekin, eroso daude ilegalizazioekin. Horren karira babestu dituzte ilegalizazioaren eta errepresioaren aurrekontuak. Espainiako legalitatea eta epaile faxistek inposatzen digutena betetzera, hots, lan zikina egitera, Espainiako Polizia Autonomikoa lehen lerroan kokatu dute.

Gure hitzek erran eta gure ekintzek berresten duten moduan, herri hau zapaldu nahi dutenei indar guztiz aurre egingo diegu. Ez diogu uniformearen koloreari erreparatuko, beraien ekintzei bai. Ertzaintza herri honen aurka jartzea deliberatu zuen PNVk. 20 urtetara doberman amorratu espainolzalak besterik ez dituzte sortu. Uniformeagatik ez balitz, zaila litzateke ertzain eta guardia zibil bat bereiztea. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako belaunaldi gazteek ostikadak, pilotakadak, jazarpena, kontrolen umilazioa, tortura eta bortxaketa Ertzaintzaren eskutik jaso dute, garai batekook batez ere Guardia Zibilarena jasan genuen bezala. Horra herri honek ahaztuko ez duena.

Iragan urteetan publikoki erran dugun bezala, Espainiako Polizia Autonomikoarekiko ETaren jarrera eta erantzuna gorputz polizial honek Euskal Herriaren errepresioaren aurka hartzen dituen erantzukizun eta jarreraren arabera izango da. Azkeneko hamarkadan herritarren aurkako errepresioaren erantzule nagusietako batean bilakatu da. ETak Espainiako Polizia Autonomikoaren aurkako kanpainan jarraituko du bere jarrera eta izaera errepresiboa aldatu arte. PNVren esku dago hori aldatzea.

#### Lakuako Lehendakaritza eskuratzeko norgehiagoka hasia da:

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian martxoan berriz ere hauteskunde antidemokratikoen beste itzuli bat burutuko da. Hauteskunde horietan independentistek egon ezingo dutela argiki iragarri dute jada. Lau hitzekin protesta egin arren, pozik dago klase politikoa egoera horretan.

PNV, irabaztearen truke edozer gauza egiteko prest agertu zaigu. 4. legealdirako zer eskainiko du Ibarretxek? Aurrez hirutan iragarritako kontsulta berri bat? Determinazioz errandako «kontsulta egin, egingo da» azukre koxkorra kafean bezala urtu ondoren zein sinesgarritasun du herritarren aurrean? PNVk PSEri egina dio jada begi keinua. Aralar, IU eta Eusko Alkartasunak PNVren kontsultaren antzezlan txalotzen duten bitartean, ezker abertzalearen uretan arrantzatu nahi dute bozka kopuru berria. «Pase foral»aren alderantzizkoan kokatzen dira: «No se acata, pero se cumple».

PSEk ere Lehendakaritza eskuratu nahi du eta «baskizatze» ebakuntza estetiko egin nahian dabil. Bozkek irabazi asmoz ikurrinaz inguratuta ageri zaizkigu ekitaldi guztietan. Hari beretik, euskaldunontzako iraingarria den adierazpena egin dute berriki. Hamarkadak eta gero, herri honen hizkuntzak jasan duen zokoratzea onartzeko ariketa egitera zetozele pentsatu zutenak tronpatu dira. Ikerketa guztien gainetik euskarak inongo oinarri identitariorik duenik ukatzera etorri dira orain. Alegia, euskara Tuteran, Maulen, Hendaian, Donazaharren, Lekunberrin, Laudion, Aretxabaletan edo Lekeition hitz egitea kasualitatea omen. Berdin hitz zitekeen Valladolid edo Murcian. Euskal Herria ez ezagutzearen, ukazina dena ukatzen dute. Gezurren gurgpilean, herri honek jasandako hizkuntz zampaketa euskaldunok euskaldun ez direnekiko buruturikoa izan dela diote, eta kontrakoa salatzea hizkuntza politizatzea omen. Alegia, euskararen etsaiak euskaldundu eta euskararen alde kokatu arte euskaldunok gure hizkuntzaren defentsa eta erabilerari uko egin behar diogula agintzen digute. Euskaldunoi «Euskara askatasunean» diotenean, «Euskara iluntasunean» esan nahi digute eta oker dabilta: euskaraz eta askatasunez bizi nahi dugu euskaldunok.

#### Lizarra-Garaziren X. urteurrenean: Marko Demokratiko bat Euskal Herriarentzat!

Lizarra-Garazi hitzarmena sinatu zenetik hamar urtetara, Euskadi Ta Askatasunak hitzarmen horretan Euskal Herriko eragile ezberdinek gatazka politikoaren erroen definizioaren eta berau konpontzeko burututako hausnarketaren gaurkotasuna aldarrikatzen du. Aitzitik, egun zein posiziotan daude hitzarmen hori sinatu zuten eragile eta alderdi politikoak? Batzuk inboluzio politiko abertzalean, beste batzuk –negoiazio prozesuan erakutsi bezala– inolako konpromisorik eta erantzukizunik hartu nahi izan gabe.

Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitze eskubidea du, Euskal Herriak subjektu politikoa izan behar du

baldin eta biziko bada. Estatuak inposatutako konstituzioek eta marko zatikatzailak herri hau itotzen dute. Euskal Herriak ez du zatiketan oinarritutako estatutu edo amezkoramendu berririk behar. Horiek guztiek gatazka politikoa gainditu ez eta beraz sakondu eta elikatzeko besterik ez dute balio. Euskal Herriak autodeterminazioa behar du. Euskal herritarrok marko demokratiko bat behar dugu zeinetan posible izango baiten edozein proiektu politiko garatzea, independentzia barne.

Agintari eta politikari profesionalak ez daitezela engaina. Herritarrek engainatzen saiatzeari uko egin diezaiotela: arazoa ez da ETA. H erri honen eskubideen aitortzan dago gatazkaren konponbidea. ETAREN desagerpen polizialarekin amets egiten duten horiei, Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren txikizioa eta desagerpena bilatzen duten agintari eta politikariei deia, Euskadi Ta Askatasuna mende erdia betetzear dagoenean: etsi ezazue Euskal Herriaren zampaketa estrategian, etsi inposatutako konstituzioan, heldu Lizarra-Garaziko edukiei, eraiki dezagun autodeterminazioan oinarritutako Marko Demokratiko bat. Eman hitz herriari, entzun herri honen deiarra: aski da, askatasuna!

Gora Euskal Herria askatuta!                      Gora Euskal Herria sozialista!  
Jo ta ke independentzia eta sozialismoa lortu arte!

Euskal Herrian, 2008ko urrian  
Euskadi Ta Askatasuna  
ETA